

AINHOA ORTIN BLANCO, DAGOENEKO EMAKUMEZKO FIDE MAISU BIHURTU DA

**(2018ko urtarrilaren 7an, Almeriako Roquetas del Mar
herrian lortua)**



Ainhoa Ortin Blanco.

Ainhoa Ortin Blanco tuterarrak 16 urte ditu eta Tuterako Santa Ana taldean jokatzen du.

Almeriako Roquetas del Mar herrian jokatzen ari den txapelketan 2018ko urtarrilaren 7an lortu zuen garaipenari esker, modu birtualean bada ere, FIDE eloko 2.100 puntuko langa gaitztea lortu du. Horrekin batera, Emakumezko FIDE Maisuaren titulua eskuratu du. Zorionak berari!

Oso haurra zenetik nabarmendu zen Nafarroan. Adin eta genero guztietako Nafarroako lehen emakume xake txapelketa bihurtu zen, 2017ko ekainean Xake Azkarreko Nafarroako Txapelketa irabazi zuenean.

Bere garapena ikusgarria da. 2017ko irailean lehen aldiz lortu zuen FIDE eloko 2.000 puntu baino gehiago izatea. Hilabete gutxitan 2.100eko langa ere gainditu du eta horrekin batera aipatutako titulua bereganatu du.

2018-01-07.

Iturria: Oberena Xake Taldearen webgunea.